

## **R400 IKASTAROAN GARATU BEHARREKO PROIEKTURAKO LEHENTASUNEZKO ARLOAK**

- **Lanbide Heziketan premia handiena duten arloen zerrenda:**

Orokorrean ETHAZI metodologia berriarekin zerikusia duten euskarazko materialak sortzeak du lehentasuna, edozein arlotakoak.

Horien gain, zerrenda honetan agertzen diren irizpideak hartuko dira kontutan euskarazko ikasmaterialak sortzeko:

- Ziklo berrietarako ikasmaterialak
- Ziklo horretan B-D ereduan emateko euskarazko ikasmateriala urria izatea
- Ziklo batean baino gehiagotan erabiltzeko ikasmaterialak
- Ziklo berean modulu batean baino gehiagotan erabiltzeko ikasmaterialak

- **Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Hezkuntza Sailaren lehentasun ildoen baitako “Euskara: gaitasuna eta erabilera” ataleko ekimen eta zereginekin lotutako materialak;** izan ikasgelan ikasleekin baliatzeko, izan irakasleen prestakuntza- edo formazio-lanetarako. Besteak beste:

- Ahoz lan ildoak: Haur, Lehen edo/eta Bigarren Hezkuntzan ikasleen ahozko hizkuntza-gaitasuna lantzeko.
- Ulibarri lan ildoak: ikastetxeetako Normalizazio Proiektuetako ekinbideak garatzeko.
- Sakonean lan ildoak: gure ikastetxeetan garatzen ari diren murgiltze- edo mantentze-prozesuak optimizatzeko.
- Ongi Etorri lan ildoak: ikasle etorri berrien euskarazko oinarrizko hizkuntza-gaitasuna lantzeko.
- Kuku lan ildoak: ikastetxeetan euskal kultura curriculumetan eta eguneroko irakasjardunetan txertatzeko.
- Moti-Batu lan ildoak: ikasleekin euskararen aldeko motibazioak eta hizkuntzen aldeko jarrera eta jokabideak lantzeko, eta ikasleen zein irakasleen formazio soziolinguistikoan sakontzeko.

- **Batxilergoan eta DBHn, euskarazko material gutxi duten irakasgaiak.**

- **Curriculumaren euskal dimentsioarekin lotura duten eskola-materialak.**